



128 eredu

Aurkeztu behar dutenak

Honako hauek egongo dira 128 eredu aurkeztera behartuta: pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, sozietateen gaineko zerga edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrak) dela-eta atxikipena egitera edo konturako sarrera egitera behartuta dauden pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta gainerako entitateak, baldin eta kapitalizazio-eragiketen eta bizi- zein elbarritasun-aseguruen ondorioz lortutako errentak edo kapital higigarriaren etekinak direla-eta ordainketa egiten badute.

Aurkezteko epea

128 eredu, oro har, apirileko, uztailako, urriko eta urtarrileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan aurkeztu behar da, aurre-aurreko hiruhileko naturalean atxikitako eta kontura sartutako zenbatekoak direla eta.

Nolanahi ere, atxikitzaileen edo betebeharpeko pertsona edo entitateen kasuan Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiaren 71. artikulua 3. zenbakian 1. eta 2. azpizenbakietan aipatutako inguruabarrak gertatzen badira (enpresa handiak), eredu hil guztietako lehenengo hogeita bost egun naturaletan aurkeztu behar da, aurre-aurreko hilean atxikitako eta kontura sartutako zenbatekoak direla eta, uztailari dagokion autoliquidazioa izan ezik. Izan ere, autoliquidazio hori abuztuan edo iraileko lehenengo hogeita bost egun naturaletan zehar aurkeztu behar da.

Betetzeko jarraibideak

Ekitaldia

Autoliquidazioari dagokion ekitaldiaren lau zifrak adieraziko dira.

Epealdia

Hiru hileroko autoliquidazioa bada (oro har):

1T = 1. hiruhilekoa	2T = 2. hiruhilekoa	3T = 3. hiruhilekoa	4T = 4. hiruhilekoa
---------------------	---------------------	---------------------	---------------------

Hileroko autoliquidazioa bada (enpresa handiak):

01 = urtarrila	02 = otsaila	03 = martxoa	04 = apirila
05 = maiatza	06 = ekaina	07 = uztaila	08 = abuztua
09 = iraila	10 = urria	11 = azaroa	12 = abendua

Aitortzailea

Pertsona edo entitate aitortzailearen identifikazio-datuak adierazi behar dira.

Liquidazioa

[01] laukia *Aitortuen kopurua, guztira*. Hemen adieraziko da aitortutako ekitaldian zenbat zergadunek lortu dituzten kapitalizazio-eragiketen eta bizi- zein elbarritasun-aseguruen ondoriozko errenta edo kapital higigarriaren etekin positiboak.

[02] laukia *Atxikipenen eta konturako sarrerren oinarria*. Aurreko **[01]** laukian positiboak diren errentak edo etekinak aitortu dituzten pertsonen edo entitateen dagozkien atxikipenen edo konturako sarrerren oinarrien batura osoa adieraziko da.

[03] laukia *Atxikipenak eta konturako sarrerak*. Errenta edo kapital higigarriaren etekin positiboak aitortu dituzten pertsona edo entitate guztiei dagozkien atxikipenen eta konturako sarrerren zenbateko osoa adieraziko da.

Autoliquidazioan jaso diren pertsona edo entitate aitortzaile bakarrak etekin edo errenta negatiboak edo zero direnak lortu dituztenak badira, lauki honetan zero adieraziko da.

[04] laukia *Aitortuen kopurua, guztira*. Hemen adieraziko da aitortutako ekitaldian zenbat zergadunek lortu dituzten kapitalizazio-eragiketen eta bizi- zein elbarritasun-aseguruen ondoriozko errenta edo kapital higigarriaren etekin negatiboak edo zero direnak.

Modelo 128

Obligación de presentar

Estarán obligadas a presentar el modelo 128 las personas físicas, jurídicas y demás entidades, incluidas las Administraciones públicas que, estando obligadas a retener o a ingresar a cuenta por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, por el Impuesto sobre Sociedades y por el Impuesto sobre la Renta de No Residentes (establecimientos permanentes) satisfagan rentas o rendimientos del capital mobiliario procedentes de operaciones de capitalización y de contratos de seguro de vida o invalidez.

Plazo de presentación

El modelo 128, con carácter general, deberá presentarse durante los veinticinco primeros días naturales de los meses de abril, julio, octubre y enero, por las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que correspondan al trimestre natural inmediato anterior.

No obstante, cuando se trate de retenedores o de personas o entidades obligadas en las que concurren las circunstancias a que se refieren los números 1.º y 2.º del apartado 3 del artículo 71 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido (grandes empresas), se presentará durante los veinticinco primeros días naturales de cada mes, en relación a las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que correspondan al mes inmediato anterior, excepto la autoliquidación correspondiente al mes de julio, que se presentará durante el mes de agosto y los veinticinco primeros días naturales del mes de septiembre inmediato posterior.

Cumplimentación

Ejercicio

Se consignarán las cuatro cifras del ejercicio al que corresponda la autoliquidación.

Período

Si se trata de una autoliquidación trimestral (con carácter general):

1T = 1.º trimestre	2T = 2.º trimestre	3T = 3.º trimestre	4T = 4.º trimestre
--------------------	--------------------	--------------------	--------------------

Si se trata de una autoliquidación mensual (grandes empresas):

01 = enero	02 = febrero	03 = marzo	04 = abril
05 = mayo	06 = junio	07 = julio	08 = agosto
09 = septiembre	10 = octubre	11 = noviembre	12 = diciembre

Declarante

Se cumplimentarán los datos identificativos de la persona o entidad declarante.

Liquidación

Casilla **[01]** *N.º total declarados/as*. Se consignará el número total de contribuyentes a los que se les haya satisfecho rentas o rendimientos del capital mobiliario, de signo positivo, procedentes de operaciones de capitalización y de contratos de seguro de vida o invalidez durante el período declarado.

Casilla **[02]** *Base retenciones e ingresos a cuenta*. Se consignará la suma total de las bases de retención e ingreso a cuenta correspondientes a las personas o entidades con rentas o rendimientos de signo positivo declarados en la casilla **[01]** anterior.

Casilla **[03]** *Retenciones e ingresos a cuenta*. Se consignará el importe total de las retenciones e ingresos a cuenta practicados que correspondan al total de personas o entidades declaradas con rentas o rendimientos del capital mobiliario de signo positivo.

En los casos en que las únicas personas o entidades declaradas incluidas en la autoliquidación sean aquellas que han obtenido rentas o rendimientos de signo negativo o cero, se consignará cero en esta casilla.

Casilla **[04]** *N.º total declarados/as*. Se consignará el número total de contribuyentes que hayan obtenido rentas o rendimientos del capital mobiliario, de signo negativo o cero, procedentes de operaciones de capitalización y de contratos de seguro de vida o invalidez durante el período declarado.



[05] laukia *Atxikipenen eta konturako sarreren oinarria*. Aurreko [04] laukian negatiboak edo zero diren errentak edo etekinak aitortu dituzten pertsoneri edo entitateei dagozkien atxikipenen edo konturako sarreren oinarrien batura osoa adieraziko da.

[06] laukia *Sartu beharreko zenbatekoa, guztira*. Ordaindu beharreko zenbateko osoa adieraziko da, zeina bat etorriko den [03] laukian adierazitakoarekin.

Aitorpen negatiboa

Autolikidazioan aitortutako pertsona edo entitate guztiek errenta edo etekin negatiboak edo zero direnak lortu badituzte eta, ondorioz, [04] eta [05] laukiak bakarrik bete badira, «X» bat markatuko da berariaz jarritako laukitxoan, atal honetan.

Casilla [05] *Base retenciones e ingresos a cuenta*. Se consignará la suma total de las bases de retención e ingreso a cuenta correspondientes a las personas o entidades, con rentas o rendimientos de signo negativo o cero declarados en la casilla [04] anterior.

Casilla [06] *Importe total a ingresar*. Se consignará el importe total a ingresar, que coincidirá con el consignado en la casilla [03].

Declaración negativa

En el supuesto de que la autoliquidación contenga exclusivamente personas o entidades declaradas que hayan obtenido rentas o rendimientos de signo negativo o cero y, en consecuencia, solamente hayan sido cumplimentadas las casillas [04] y [05], se marcará una «X» en el recuadro habilitado al efecto, en este apartado.